

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



1. MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da, entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumen-proba amaitu ondoren, **ordubete eta 35 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Azterketa idatzia	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposatutako denbora
	Irakurmena	10	20 puntu	35min inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60min inguru
	Irakurmena eta idazmena	28	50 puntu	1h 35min
	Entzumena	10	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2008ko maiatza**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENTZUMENA

1. TESTUA

Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan **Maite Iturreri** egindako elkarrizketa entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zertaz hitz egingo dute gaur Faktorian?
 - a. Babel dorreaz arituko dira.
 - b. Hizkuntza asko dakien jendeaz.
 - c. Politikaz eta munduko hizkuntzez.
1. Zergatik saritu dute Maite Iturre?
 - a. Saritzeko moduan hitz egiteagatik.
 - b. Ikasketen emaitzengatik.
 - c. Zazpi hizkuntza hitz egiteagatik.
2. Nola hartu du albistea?
 - a. Asko poztu da albistearekin.
 - b. Ez zuen espero horrelakorik.
 - c. Makal zegoen albistea entzutean.
3. Besteak beste, zein nota atera ditu?
 - a. 29 bikain atera ditu.
 - b. 17 ohorezko matrikula atera ditu.
 - c. 29 ohorezko matrikula atera ditu.
4. Zer egin behar da horrelako notak ateratzeko?
 - a. Noizean behin ikasi egin behar da.
 - b. Eguneroko lana da garrantzitsuena.
 - c. Inteligentzia da garrantzitsuena.
5. Nola antolatzen zuen eguna?
 - a. Ez zuen plangintza berezirik egiten.
 - b. Plangintza berezia egiten zuen.
 - c. Azken egunetan plangintza aldatu egiten zuen.
6. Zergatik dio birraitona-amonak "inspirazio-iturri" izan zirela?
 - a. Urrutira joan behar izan zutelako.
 - b. Artista-jendea izan zelako.
 - c. Lana egin behar izan zutelako.
7. Zer egin zuen lau urte betetzean?
 - a. Brasilera joan zen.
 - b. Argentinara joan zen.
 - c. Euskal Herrira itzuli zen.
8. Non zegoen Euskal Etxea?
 - a. La Platan, bere herrian.
 - b. Probintziako auzo batean.
 - c. Buenos Airesetik urrun.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- b	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

ENTZUMENA

2. TESTUA

Euskadi Irratiko elkarrizketa bat entzungo duzu. **Mendian ez galtzeko** ikastaro baten informazioa emango dute eta hainbat aholku entzungo dituzu.

Bi aldiz entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. *Zer egin behar da mendira irten baino lehen?*
 - a. *Motxila egokia aukeratu.*
 - b. *Gauzak ongi prestatu.*
 - c. *Mapak eta liburuak irakurri.*
1. Mendian gaudela, zer komeni da?
 - a. Bidegurutzeetan markak egitea.
 - b. Bordetan sartzea, beharra izanez gero.
 - c. Ikusitako guztia gogoan hartzea.
2. Zer da orientazioa?
 - a. Kokapena jakiteko teknika multzoa.
 - b. Lekuak gogoratzeko teknika multzoa.
 - c. Bideak ikasteko ahalmen berezia.
3. Zein da "urrezko araua"?
 - a. Eskarmentua dutenei galdetzea.
 - b. Mapak ulertu eta jarraitzea.
 - c. Inoiz ibili ez direnek arauak betetzea.
4. Orientazio-teknikak noiz dira garrantzitsuak?
 - a. Jende asko dagoen lekuetan edozein eguraldirekin.
 - b. Leku ezezagunetan eta eguraldi txarra dagoenean.
 - c. Jende gutxi dagoen lekuetan, eguraldi ona egin arren.
5. Zer egin behar da mendian galduz gero?
 - a. Zauden lekuan geratu eta ez mugitu.
 - b. Laguntza bila joan, lehenbailehen.
 - c. Egoera aztertu, ezer egin aurretik.
6. Zer dio teknologia berriei buruz?
 - a. Ez dutela laguntza handirik ematen.
 - b. Eramateko, baina erabiltzen jakinda.
 - c. Ez eramateko, gehiegi pisatzen dutelako.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- b	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----

ENTZUMENA

3. TESTUA

Ondoren irratiko **lau iragarki** entzungo dituzu. Entzun informazioa eta erantzun galderi.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, idatzi erantzunak laukietan. Galdera bakoitzari erantzuteko, gehienez, **hiru hitz erabili**.

Zero iragarkia adibidea izango da. Hasi erantzunak idazten hurrengotik aurrera.

Adibidea:

0. iragarkia.

a. *Nongoa da Luara?*

a. *Gasteizkoa*

b. *Zein egunetan izango da kontzertua?*

b. *Martxoaren 8an*

1. iragarkia.

a. Zertan egiten dute % 40ko beherapena?

a.

b. Zenbat kobratzen dute mantentze-zerbitzuko liburuarengatik?

b.

2. iragarkia.

a. Zein telefonotan egin behar da erreserba?

a.

b. Zer jan daiteke?

b.

3. iragarkia.

a. Eguneko menua, karta eta beste zer **menu mota** ematen dute?

a.

b. **Non** dago?

b.

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

1. TESTUA

Matrakan, Berria egunkariko gehigarrian, hiru gazteri egindako elkarrizketak irakurriko dituzu.

Egitekoa

Irakurri testuak eta hurrengo orriko esaldiak.
Idatzi laukitxoetan zein testuri dagokion esaldi bakoitza.

IKASKETAK AMAITUTA, LANEAN HASTEKO GARAIA DA. HIRU GAZTEK LEHEN LANPOSTUAREN GORABEHERAK NOLA BIZI DITUZTEN AZALDU DIGUTE

A



MAIDER AZKUENAGA FERNANDEZ

Adina: 21 urte.
Bizilekua: Bilbo.
Ikasketak: Fisioterapien lizentziatua.
Lantokia: ASPARBI, Bizkaiko Parkinson Elkarte.
Lanean: Joan den urritik.

1. Nola aurkitu zenuen lanpostu hau?

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialean izena eman, lan poltsan sartu eta bi egunetara deitu zidaten. Hurrengo egunean elkarrizketa egin eta arratsaldean bertan jakin nuen hartu nindutela. Lauk egin genuen elkarrizketa. Lanean hasi aurretik, bi astetan joan nintzen Elkartera, orduko fisioterapeutak nola lan egiten zuen ikustera; ariketak eman zizkidan, baita Parkinsonari buruz zuen informazio guztia ere. "Honekin kontuz" edo "bestearekin hau egin", esan zidan.

2. Zer da zure lanpostuan gustukoena duzuna?

Adineko jendea oso esker onekoa da, gutxi ematen diezu, eta asko itzultzen dizute. Beraien umorea eta beraien bizitzaren ikuspuntua gustatzen zaizkit. Badakite gaixo daudela, baina umorez hartzen dute, eta beti datoz lan egiteko eta zu pozteko prest. Batzuk alargunak dira edo ez dute seme-alabarik eta zugar bilatzen dute maitasun hori. Eta nik ematen diet, ahal dudana!

3. Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gaixotasunaren alde txarra ikusten duzu, nola batek ezin duen pauso bat ondo eman, besteak ezin duen kremlera ondo lotu, batzuek ezin dute hitz egin... Zuregan izugarritzko konfiantza dute eta zuregana joaten dira zer gertatzen zaien azaltzera eta zer egin dezaketen galdezka.

B



NEREA SARASOLA ALFONSO

Adina: 21 urte.
Bizilekua: Orereta.
Ikasketak: Enpresa Zientzietan diplomatua.
Lantokia: Gipuzkoa eta Donostiako Kutxa.
Lanean: Joan den urritik.

1. Nola aurkitu zenuen lanpostu hau?

Uztailetik irailera arte praktiketan ibili nintzen. Bukatu eta astebetera sei hilabeteko kontratua eskaini zidaten. Ordura arte unibertsitatearekin nuen kontratua eta hortik aurrera Kutzarekin.

2. Zer da zure lanpostuan gustukoena duzuna?

Arazo batekin etortzen zaizun jendeari arazoa konpontzen laguntzea gustatzen zait gehien. Adibidez, andra bat etortzen zaizu esanez ezin duela zerbait egin eta presazkoa dela, eta lagundu egiten diozu. Normalean diru sarrerak, ordainketak, enpresetako nominak... egiten ditut. Orokorrean kutxazainetan egin ezin daitezkeen gauzak.

3. Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Banketxera sartu eta lehenengo ikusten duzuna leihatilako langilea da. Ondorioz, kexa guztiak guri etortzen zaizkigu nahiz eta guk errurik ez izan.

C



IBAI GOIENETXEA

Adina: 24 urte.
Bizilekua: Altza (Donostia).
Ikasketak: Informatikako bi modulu.
Lantokia: Aplikazio informatikoen garapenerako enpresa bat.
Lanean: 2005eko irailetik.

1. Nola aurkitu zenuen lanpostu hau?

Kasualitatea izan zen neurri batean, lagun baten bidez hasi nintzelako. Haren enpresan jendea behar zutela esan zidan, curriculum eman nion eta, handik astebetera, lanean ari nintzen.

2. Zer da zure lanpostuan gustukoena duzuna?

Guk aplikazioak egiten ditugu, eta nik programatu egiten dut. Onena da proiektu bakoitza desberdina dela. Antza daukate, baina beti gauza berriak dira eta orduan ez zara aspertzen.

3. Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gauzak beti konplikatzen dira eta zu zaude karguan. Gainera, normalean gauzak ez dira ateratzen zuk espero dituzun bezala eta azkenean, orduak sartu behar dituzu epemugara iristeko. Beti ibiltzen zara denbora juxtuarekin eta edozer konplikatzen dela ere, beti berandu.

Egitekoa:

Idatzi laukitxoetan esaldi bakoitzari zein testu dagokion.

- Letra bera behin baino gehiagotan erabili beharko duzu.
- 3. esaldian bi letra jarri behar dituzu.

Adibidea:

0. Goizean azterketa egin eta arratsalderako lana lortu zuen.

A

1. Haserre daudenen hitzak entzutea da okerrena.

2. Gauzak ezin amaitu ibiltzea da okerrena.

3. Arazoak dituen jendeari laguntzea gustatzen zaio.

4. Unibertsitatean lan egin eta zuzenean oraingo lanean hasi zen.

5. Ezintasunak ikustea gogorra da.

6. Beti gauza bera ez egitea gustatzen zaio.

7. Lanean hasi aurretik, lanpostua ezagutzera joan zen.

8. Langileak behar zituztelako hasi zen lanean.

9. Asko jasotzen da adineko jendearengandik.

2. TESTUA

Zazpikan, Gara egunkariko aldizkarian, Ana Galarragaren artikulu bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letrak** beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.



Garuna trebatzeko jokoak, boladan

Duela hamarkada batzuk, lasterka egitea egon zen boladan; gero, aerobikaren txanda izan zen; geroxeago, kulturismoarena; ondoren, yoga eta tai-xia etorri ziren, eta orain gutxi pilates egiten hasi zen jendea. Baina horiek denak atzean utzi ditu beste ariketa-mota batek: *brain training* edo garunaren trebakuntza.

Azkenaldian, boladan daude garunerako jokoak. Informazioa prozesatzeko azkartasuna, memoria, arreta, logika... adimenaren hainbat alderdi lantzeko aukera eskaintzen dute joko horiek, eta, egileen arabera, nahikoa da egunero tartetxo bat aritzea garuna suspertzeko eta gero eta adimentsuago bihurtzeko.

Nonbait, kontsumitzaileek joko horien eraginkortasunean sinesten dute edo, besterik gabe, dibertigarriak iruditzen zaizkie, arrakasta handia izaten ari baitira. Esate baterako, Ameriketako Estatu

Batuetan bi milioi dolarreko negozioa sortu zuten 2005ean; iaz, berriz, 80 milioi dolarrekoa izan zela kalkulatu dute. Alegia, 40 aldiz hazi da bi urtean. Japoniako joko ezagunenak, berriz, 15 milioi kopia saldu ditu hainbat euskarrentzat, batez ere bideo-jokoen kontsoletarako.

Jokoek antzeko oinarria dute. Egileen esanean, garuna muskuluen antzekoa da; entrenamendu egokia eginez gero, hazi egiten da, eta, zenbat eta gehiago entrenatu, orduan eta errazago eta azkarrago egiten ditu ariketak. Zientifikoki frogatua omen dago gainera.

Ana Galarraga

Zazpika aldizkaria, 2008ko martxoa

Adibidea:

0. Testuaren arabera, nola aldatu dira azken urteetan jendearen ohiturak?
- a. Gorputza zaintzen hasi, eta, ondoren, burua zaintzera pasa da jendea.
 - b. Modu batera edo bestera gorputza zaintzea izan da beti garrantzitsuena.
 - c. Gero eta garrantzi handiagoa eman zaio ariketa fisikoari eta gorputzari.
1. Zer proposatzen da burua ongi izateko?
- a. Garuna trebatzeko jokoak praktikatzea.
 - b. Ariketa fisikoa egunero egitea.
 - c. Yoga, tai-xia edo pilates egitea.
2. Nola landu daiteke adimena?
- a. Hilabetean behin edo jokoan arituta.
 - b. Tarterik utzi gabe arituta.
 - c. Jokoekin egunero pixka batean arituta.
3. Testuaren arabera, zer diote kontsumitzaileek?
- a. Ez dute jokoetan sinesten eta aspertu egiten dira.
 - b. Onuragarriak eta entretenigarriak iruditu zaizkie.
 - c. Joko horien arrakasta ikusteko dagoela, oraingoz.
4. Estatu Batuetan zer gertatu da?
- a. Azken aldian jokoan negozioak behera egin duela.
 - b. Pixkanaka ari direla igotzen irabaziak 2005etik aurrera.
 - c. Irabaziak biderkatu egin direla azken urteetan.
5. Zer frogatu da zientifikoki joko egileen ustez?
- a. Garuna trebatu daitekeela jokoan bidez.
 - b. Joko asko erabili behar direla garuna trebatzeko.
 - c. Muskuluak landuz garuna trebatzen dela.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----

3. TESTUA

*Berr*a egunkariak harpidedunei bidalitako **gutuna** irakurriko duzu.

Egitekoa

Testuaren informazioaz baliatuta, erantzun **egia** ala **gezurra** den, eta laukian **X** letra idatzi, adibidean egiten den bezala.

*EUSKALTEGIA
KALE NAGUSIA, 12
48910 SESTAO*

Harpidedun agurgarria:

Lehenik eta behin, zorionak euskarazko prentsa irakurtzeko egin duzun hautuagatik. Zuek gabe ezinezkoa litzateke proiektu komunikatibo hau aurrera eramatea. BERRIA bost urte betetzera doa 2008. urtean; eskerrik asko bost urte hauetan eman diguzuen sostenguagatik.

BERRIAren helburua euskarazko egunkari bat eskaintzea baino haratago doa. Euskarazko kultur produkzioa sustatu eta zabaltea ere bada gure xedeetako bat. Oraingo honetan, aldizkari berri baten eskaintzarekin gatzoz zuregana: *NORA* aldizkaria.

Hilabetekaria izango da *NORA*, eta harpidedunek BERRIArekin batera jasoko duzue, horregatik gehiago ordaindu gabe. Era honetan, euskarazko hedabideekiko zure konpromisoa eskertu nahi du BERRIAk, eta aldizkari berriari zabalkunde handia eman, ahalik eta indartsuena kalera dadin. Egungo egoeran ez da erraza euskarazko produktu berriak sortu eta merkaturatzea, baina orain bost urte helburu hori jarri genion geure buruari eta ari gara apurka-apurka urratsak egiten. Urrats horiek ezinezkoak izango lirateke harpidedunen eta erosleen bultzadarik gabe.

Elkarlanaren ondorio da *NORA* hilabetekaria; BERRIA egunkariak eta *EUSKAL HERRIA* aldizkariak bat egin dugu produktu berri hau kaleratzeko. Aldizkari berria da, ausarta eta ikusgarria, kalitate handiko irudi eta testuz osatua; kultura, herriak, mendiak, natura bidaiak, ibilbideak eta abar izango ditu hizpide.

BERRIAko harpidedunek ez duzue *NORA*-ren harpidetza egin beharrik, doan jasoko duzue, otsailetik aurrera, hileko lehen astean.

Agur bero bat,
Harpidetza Saila

Egitekoa:

Erantzun **egia** ala **gezurra** den.

Adibidea:

	Egia	Gezurra
0. <i>Berria</i> egunkariak 5 urte egingo ditu 2008. urtean.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
1. Gutuna egunkaria etxean hartzen dutenei bidali die <i>Berriak</i> .	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. <i>Nora</i> aldizkaria hamabostean behin argitaratuko da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Harpidedunek doan eskuratu ahal izango dute <i>Nora</i> aldizkaria.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Aldizkaria jasotzeko harpidedunek <i>Berria</i> egunkariari eskatu beharko diote.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. <i>Berria</i> egunkariak <i>Euskal Herria</i> aldizkariarekin batera egingo du <i>Nora</i> aldizkaria.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula (**140 hitz**).
- Idazteko boligrafoa erabili.
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun

Euskaltegiko ikasleek irteera bat egin zenuten joan den asteburuan.

Era askotako arazoak izan zenituzten hasiera-hasieratik.

Taldeko kide bat ez zen irteerara joan eta gertatu zen guztia kontatu behar diozu idatziz.

Nahi duzun ordenan eta moduan, baina ondorengo **puntu guztiak aipatu behar dizkiozu** gelako lagunari:

- errepideko arazoak
- eguraldia
- lekua
- gertatutako gauza onen bat
- hurrengo urtean nora

Idatzi mezua gelako lagunari.

Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.



Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)

LEHEN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

LEHEN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia 50 gutxienez, 28	Irakurmena	%20	gutxienez 10	20 puntu	35min inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60min
Ahozko proba 50 gutxienez, 27	Entzumena	%20	gutxienez 10	20 puntu	25min
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10min
GUZTIRA		%100	Gutxienez 55	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu eta 28 eta 27 proba bakoitzean Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

Hauk dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagokion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.